

KLAUSULA-EREDUA



ONURADUN IZATEKO BALDINTZAK

Onuradun izateko, aurkezten diren pertsona fisiko edo juridikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirako jardueretan izandako esperientzia eta ibilbidea egiaztatu egin beharko dute.

Egiaztatzeko, bitarteko hauetako bat edo batzuk erabil daitezke:

- Entitatearen ibilbidea eta esperientzia emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alor zehatzean. Azken hiru urteetan egindako jarduera eta lan aipagarrienak adierazi beharko dira.
- Langileek generoaren alorrean duten titulazioa, prestakuntza eta curriculum.
- Entitatearen eratze-eskrituran edo estatutuetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egingo dela agertzea, entitatearen helburu gisa.
- Enpresa-ziurtagiri edo -bereizgarri bat izatea berdintasunaren alorrean, edo emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunean erakunde laguntzaile izatearena, edo antzeko beste edozein ziurtagiri ofizial.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plana eta/edo familia-bizitza, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurriak diseinatu eta aplikatu izana.
- Enpresaren edo entitatearen junta, zuzendaritza-organo edo administrazio-batzordeko kideetatik %40 gutxienez emakumeak izatea.

Baldintza horiek ezartzeko, honako hauek hartu dira oinarritzat: 4/2005 Legearen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoaren, 20.2. artikulua; 38/2003 diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 11. eta 13. artikulua; eta 1/1997 Legegintza Dekretuaren, Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenaren, 50. eta 51. artikulua.

